# PLAN INTEGRALA PANDEMIARI AURRE EGITEKO

Bergarako Udala

Bergarako Udala

COVID-19aren eraginak hankaz gora jarri ditu pertsonen, enpresen, gizarte-eragileen, erakundeen... bizitzak, aurreikuspen eta planak.

Martxoaren erdialdetik aurrera sortutako testuinguruak behar berriak sortu eta kudeatu beharra ekarri du. Larrialdi egoeran sortutako premia eta oinarrizko beharretatik hasi eta testuinguru berrira arloak egokitu behar izan dira, izan ere, osasun krisi gisa hasi zena, berehala bihurtu zen krisi ekonomiko eta soziala ere. Krisialdi globalari erantzuteko, hortaz, plan osoa, integrala osatu dugu. Bizitzaren arlo guztiak barnebiltzen dituena, neurri handiek eta txikiek osatzen dutena.

Etengabe aldatzen diren egoerek eragiten duten ziurgabetasunarekin erabakiak hartu eta ekimenak aurrera atera dira eragile eta herritarrekin batera, baldintza zailetan izanda ere.

Behar berriak sortu dira, eta egiteko moduak ere aldatu behar izan ditugu. Erantzukizun kolektiboa eta elkarlana inoiz baino beharrezkoagoak direla begi bistan gelditu da. Eta agerian geratu da, hainbat arlori ez zitzaiola behar besteko arreta eskaintzen ari, zaintza, kasu.

Baldintza berriak denbora motzerako etorriko zirela bazirudien ere, gurekin darraite zazpi hilabete geroago eta, tamalez, denboran luzatuko direla dirudi; kontuan izan beharko dira aurrerantzean edozein erakunde kudeatu edota ekimen antolatzerakoan.

Testuinguru berri honetan Bergarako udalak martxan jarraitzen du, eta krisi egoera honi datozen hilabeteetan aurre egiteko Plan Integral bat garatu du. Uda aurretik hasi, orain osatu eta orain aurkeztuko duguna. Pandemia hasieratik egoerari aurre egiteko martxan jarritako ekintzak eta etorkizun hurbil eta ertainean beharrezko izan daitezkeenak jaso ditugu bertan. Dokumentu dinamikoa da, bizi dugun momentu ez-egonkorrak eskatzen duen erakoa, beharrak sortu ahala, haiei erantzuteko moldatuko dena.

Bizitza erdigunean jarriz eta ikuspegi global batetik, hiru ardatz nagusiren bueltan landu dugu Bergara berriz aurrera begira jartzeko plan integrala;

- -Bizitzen ari garen larrialdi egoeraren eragina txikitzea.
- -Biztanleriaren sektore sentikorrenak aintzat hartzea.
- -Ekonomia suspertzen laguntzea.

Dokumentu errealista da plan integral hau, COVID-19aren bueltan Bergarako herrian identifikatutako beharrak eta hauetarako erantzun posibleak, Bergarako udalaren eskumen, aukera eta baliabideekin ezkontzen dituena.

Badira lankidetzan landu beharreko esparruak, udalak erakunde bezala dituen mugak gainditu eta herri ekimenez erantzun sendoagoak eman ahal izateko ateak zabaltzea helburu dituztenak.

Horretarako neurri sorta landu da, beharrak identifikatu ahala osatzen joango direnak. Oraingoz, talka planerako bideratzeko aurrekontuaren estimazioa 2.188.000 eurokoa da. Hartutako neurriei dagokionean, azpimarratu nahi dugu berariaz egoerak eskatuta sortu behar izan direnen multzo bat daukagula, baina, baita, egoeraren ondorioz aurretik zeudenak, baina egokitu behar izan direnak jasotzen dituen beste multzo bat ere.

Orain arteko neurriak eta aurreikusitakoak ondorengo dokumentuan jasota badituzue ere, hona hemen neurri nabarmenen laburpen bat.

# INBERTSIOA GUZTIRA 2.188.000€

**ORAIN ARTE GAUZATUTAKO EKIMEN ETA LANETAN: 1.092.726€**

**AURRERA BEGIRAKO EKIMEN ETA LANETAN: 1.095.352€**

**Nondik birbideratu dira baliabide horiek? Zein da Bergarako udalaren gaur egungo egoera ekonomikoa?**

COVID-19ak eragindako egoerari aurre egitera baliabideak bideratzeko, 2020ko aurrekontuak osotasunean berrikusi behar izan dira. Maiatzean egin zen lan hori, eta aurrekontuan jasota zeuden partida batzuk birbideratu eta egoera berrira egokitu ziren, behar berriei erantzuteko partida berri batzuk sortzeaz gain.

Berrikuspen horretan, pandemiari aurre egiteko baliabideak jarri ahal izateko, lehentasunak ezarri eta egoerak baldintzatutako hainbat partida bertan behera utzi dira, izandako diru-sarrera jaitsiera orekatzeko.

Bertan behera utzi edo murriztu ziren partidak:

- Jaiak eta pandemia sasoiko ekitaldiak.
- Auzo bideak konpontzea (Agarre auzoa).
- Inbertsio ugari (Zubietako berrurbanizazioa, jolas leku estalia, Urteagako bidegorria...).

Bestalde, partida guztiak berrikusi dira.

Guztira maiatzean egokitutako partidak: 1.558.197,24€

**DIRU SARRERA MURRIZKETA AURREIKUSPENA 3.900.000€**

Bien arteko aldeari Bergarako udalaren gerakinetik egin beharko zaio aurre, 2.300.000€ko udalaren altxortegi gerakina ia agortzeraino.

Bergarako Udala

# NEURRI SOZIOEKONOMIKOAK

**Pertsonak erdigunean, jarrita oinarrizko beharrak asetzetik ongizate komunitarioa bermatzean jarri dugu helburua. Neurri hauek pertsonengan, familiengan, ekonomian... eragiteko sortuak dira.**

**Lehenengo momentutik indar eta arreta handia jarri dugu oinarrizko behar hauek asetzean, pertsonen bizitza duina bermatzeko baldintzak aztertu eta erantzutean. Hori dela eta Udaleko baliabide desberdinak bideratu dira neurri multzo honekin lotuta. Hasierako ezjakintasun eta egoera ezegonkorretan momentuko testuinguruan bat-batean sortutako beharrei, zein egungo testuinguruan mantentzen diren beharrei erantzuteko neurriak dira eta Udal baliabideen berrantolaketa, herritarrekin batera sortutako elkartasun sareak zein udalen arteko lankidetzatik eratorri dira, besteak beste.**

## 1. Pertsonak eta familiak

- Oinarrizko elikadura bermatzea. Parte-hartzaileak: Eskolak, Danobat, Caritas, Elikagai Bankua, Bergara Zaintzen eta Bergarako udala.
- Gizarte larrialdietarako laguntzak. Parte-hartzaileak: Eusko Jaurlaritza eta Bergarako udala.
- Hezkuntza desabantaila egoerak txikitzeko laguntzak. Parte-hartzaileak: Eskolak, Bergara Zaintzen, Royde, Jardun, Soraluce koop. eta Bergarako udala.
- Larrialdietarako etxea egokitzea: Larrialdi egoerei erantzuteko Bergarako udalak duen etxebizitza baldintza egokietan jarri. Parte-hartzaileak: Bergarako udala.
- Nagusienei arreta bakardadean: udal langileen lana birbideratu eta itxialdian bakarrik bizi diren pertsonei telefonoz deiak egin. Parte-hartzaileak: Bergarako udaleko langileak.
- Hondakinak ateratzeko zerbitzua. Parte-hartzaileak: Bergarako udala eta Bergara Zaintzen.
- Indarkeria matxista arrisku egoeran dauden emakumeei laguntza. Parte-hartzaileak: Bergarako udala eta Martxanterak.
- Komunikazioa: Larrialdi egoerak sortutako komunikazio premia bereziei erantzutea. Parte-hartzaileak: Bergarako Udala.

## 2. Ekonomia

- Tasa eta zergen ordainketan moldaketak. Parte-hartzaileak: Bergarako udala.
- Tokiko-merkataritza eta ostalaritzari laguntza.Parte-hartzaileak: UNED, Foru Aldundia, Bergara Bizi eta Bergarako udala.
- Herriko merkataritza biziberritzeko plana. Parte-hartzaileak: Bergara Bizi, Magnet Koop. eta Bergarako udala.
- Herriko merkataritza biziberritzeko kanpainak (Azoka eta dendak). Parte-hartzaileak: Bergara Bizi eta Bergarako udala.
- Azoka irekita mantentzeko baliabideak. Parte-hartzaileak: Bergarako udala.
- Azpi-kontratatutako enpresen kalte-ordainak. Parte-hartzaileak: Bergarako udala.
- Turismoa sustatzeko ekimenak. Parte-hartzaileak: Bergarako udala.
- Coworking gunea. Parte-hartzaileak: Bergarako udala eta UNED Bergara.
- Ortu komunitarioak: bertako ekonomia, elikadura burujabetza eta aisialdia uztartzen dituen proiektua garatu. Parte-hartzaileak: Bergarako udala.



## KULTURA ETA AISIALDIA

**Lehenengo momentutik, itxialdi luzean umeek bizi izandako egoera kontuan izanik aisialdi eskaintza osasuntsu eta duin bat bideratzeko neurrietan jarri ditugu indarrak. Bestalde, kultura eskaintza, eta orokorrean, herritarrok aisialdia bizitzeko aukeren murrizketa izan dugu eta horri ere erantzutea lehentasunezko gai bat izan da eta izaten ari da. Eskolek, Jardunek, herritarrek eta Udalak elkarlanean egindako kulturaz eta aisialdiaz berriz gozatzeko aukerak eskaintzeko neurriak dira hemen jasotzen direnak**



- Kultura eskaintza bermatu pandemia egoeran. Parte-hartzaileak: Kultura mahai herritarra eta Bergarako udala.
- Laboratoriumeko udako eskaintza. Parte-hartzaileak: Bergarako udala.
- Ume eta nerabeentzako eskaintza. Udako aisialdia. Parte-hartzaileak: Jardun euskara elkartea, Gaztelekua, herriko eskolak, Bergarako udala.
- Udarako Kirol eskaintza. Parte-hartzaileak: Bergarako udala.
- Agorrosinen egokitzapena
- Euskarazko aisialdia sustatzea birtualki. Parte-hartzaileak: Jardun, Gaztelekua eta Bergarako udala.

## EREMU PUBLIKOA



**Bergarako eremu publikoak seguruak eta egungo beharrei erantzuteko eginiko eta egiteko dauden egokitzapen zein segurtasun neurriak kontuan izan behar ditugu. Bergara bizia berreskuratu, segurtasuna bermatuz.**

- Egokitzapenak eremu publikoetan behar berriei erantzuteko
- Kale desinfekzioa
- Zerbitzuen egokitzapena (kontigentzia planak + Udal langileen EPIak + pantailak)

# HARTUTAKO NEURRIAK

## NEURRI SOZIOEKONOMIKOAK

### Pertsonak eta familiak

**Oinarrizko elikadura bermatzea:**

| | |
|---|---|
| Elikadurarako oinarrizko laguntza (banaketa tarteetan emandako laguntzak) | 6.626€ |
| Elikagai banaketa | 23.856€ |
| Elikagai freskoetarako diru-laguntza | 40.000€ |

| | |
|---|---|
| **Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) + Gizarte Larrialdietarako Udal Laguntzak (GLUL) (abuztuak 1)** | 182.382€ |

**Hezkuntza desabantaila egoerak txikitzeko laguntzak:**

| | |
|---|---|
| Arrakala digitala | 4.000€ |
| Hezitzaile birtuala | 27.343,75€ |
| Ikasmaterialetarako eta aisialdirako material laguntza | 1.500€ |
| Eskola jarduna jarraitzeko hezitzaileak laguntza ematera bideratzea | 15.370,82€ |

**Nagusienei arreta bakardadean**

| | |
|---|---|
| Udal langileen lan orduak deiak egiten | 24.150€ |
| **Covid-19 positiboei hondakinak ateratzeko zerbitzua** | 5.040€ |

### Ekonomia

**Tasa eta zergen ordainketan moldaketa**

| | |
|---|---|
| Ura | 2.501,82€ |
| Zabor bilketa | 17.972,39€ |

**Tokiko merkataritza eta ostalaritzari laguntza**

| | |
|---|---|
| Ostalaritzan terraza tasatan hobaria | 20.730,24€ |
| Terrazen moldaketarako pertsonal gastuak | 2.351,50€ |
| Formazioa | 10.500€ |

**Azoka irekita mantentzeko baliabideak**

| | |
|---|---|
| Pertsonal orduak, aforo kontrola eta laguntza | 9.240€ |
| Espazioaren egokitzapena | 2.000€ |

**Herriko merkataritza biziberritzeko plana**

| | |
|---|---|
| Berraktibaziorako dirulaguntza | 130.000€ |

**Erosketa bonuen kanpainak**

| | |
|---|---|
| Kuttuna ekimena, 200.000 euroko inpaktu ekonomikoa sortzeko | 44.000€ |

**Azpi-kontratatutako enpresen kalte-ordainak**

| | |
|---|---|
| Hainbat kirol zerbitzu, sorospen zerbitzua (Martxoa-Apirila) | 18.326,41€ |
| Yoga zerbitzua (Martxoa-Ekaina) | 2.460,80€ |
| TAO zerbitzua (Martxoa-Ekaina) | 8.700,31€ |
| Udal pilotalekuaren garbiketa eta kudeaketa (Martxoa-Maiatza) | 2.434,57€ |
| Labegaraietako garbiketa eta kudeaketa (Martxoa-Maiatza) | 2.556,29€ |
| Osintxuko liburutegi zerbitzua (Apirila-Ekaina) | 3.271,04€ |
| Zine zerbitzua (Martxoa-Uztaila). *oraindik ordaindu barik | 7.485,25€ |

## KULTURA ETA AISIALDIA

| | |
|---|---|
| **Kultura eskaintza bermatu pandemia egoeran** | 60.000€ |
| **Laboratoriumeko udako eskaintza** | 5.681€ |

**Ume eta nerabeentzako eskaintza**

| | |
|---|---|
| Udako aisialdia | 95.000€ |

**Kirol eskaintza**

| | |
|---|---|
| Kirol eskaintza egokitu pandemia egoerara | 45.142€ |

**Euskarazko aisialdia sustatzea**

| | |
|---|---|
| Material digitalaren sorkuntza | 15.370,82€ |

## EREMU PUBLIKOAREN ERABILGARRITASUNA

**Kale desinfekzioa**

| | |
|---|---|
| Materiala (martxoaren 27tik urriaren 7ra) | 17.427,55€ |
| Pertsonal gastuak (martxoaren 27tik urriaren 7ra) | 159.143,50€ |

**Zerbitzuen egokitzapena**

| | |
|---|---|
| Kontingentzia planak | 3.853€ |
| Aurretiazko hitzordua (BAZ, gizarte zerbitzuak, Agorrosin) | 4.279€ |
| Udal langileen EPIak eta bestelako materiala | 27.394,73€ |
| Arropa garbiketa Obra eta Zerbitzuetan (apiriletik irailera 30era) | 2.065,13€ |
| Kanpoko enpresak: desinfekzioa (martxoak 27tik irailaren 30era) | 13.541,11€ |
| Desinfekzio produktuak (martxoaren 27tik irailaren 30era) | 4.885,49€ |
| Metakrilatozko babes pantailak | 5.425€ |
| Agorrosin garbiketa desinfekzioa | 4.906,82€ |

## KOMUNIKAZIOA

| | |
|---|---|
| Herriko merkataritza biziberritzeko kanpainak (Azoka eta dendak) | 5348€ |
| Covid-19arekin lotutako ohar, jakinarazpen eta antzerakoak | 1464,1€ |
| Udako eskaintzaren marketing kanpaina | 7.000€ |

# AURRERA BEGIRAKOAK

## NEURRI SOZIOEKONOMIKOAK

### Pertsonak eta familiak

**Oinarrizko elikadura bermatzea:**

| | |
|---|---|
| Elikagai banaketa | 10.000€ |
| Elikagai freskoetarako diru-laguntza | 40.680€ |
| Caritaserako diru-laguntza | 10.000€ |

| | |
|---|---|
| **Gizarte Larrialdietarako Laguntzak + GLUL** | 40.543€ |

| | |
|---|---|
| **Larrialdietarako etxea egokitzea** | 49.500€ |

**Hezkuntza desabantaila egoerak txikitzeko laguntzak:**

| | |
|---|---|
| Arrakala digitala | 4.000€ |
| Ikasmaterialetarako eta aisialdirako material laguntza | 1.500€ |

**Nagusienei arreta bakardadean**

| | |
|---|---|
| Mizpirualdeko egoiliarrei bakardadea arintzeko neurriak | 6.000€ |

### Ekonomia

**Tokiko merkataritza eta ostalaritzari laguntza**

| | |
|---|---|
| Atari komertzial digitala | 5.000€ |
| Digitalizaziorako diru-laguntzak | 47.800€ |

**Herriko merkataritza biziberritzeko plana**

| | |
|---|---|
| Gizarte ekonomia eta izaera estrategikoa duten jarduere-tan empleguen sorrera bultzatzea sustatzeko dirulaguntza | 54.000€ |

**Erosketa bonuen kanpaina**

| | |
|---|---|
| Udazken-negu kanpaina: bonuak | 120.000€ |
| Aurrera begirako bonuen kudeaketarako softwarea sortzea | 10.000€ |
| **Azpi-kontratatutako enpresen kalte-ordainak** | Kudeatzen |

| | |
|---|---|
| **Turismoa sustatzeko ekimenak** | 30.000€ |
| **Coworking gunea** | 3.600€ |
| **Ortu komunitarioak** | 140.000€ |

## KULTURA ETA AISIALDIA

| | |
|---|---|
| **Kultura eta kirola pandemiara egokitu** | 150.000€ |

**Euskarazko aisialdia sustatzea**

| | |
|---|---|
| Aukera gehiago eskaini euskaraz bizitzeko | 2.000€ |

## EREMU PUBLIKOAREN ERABILGARRITASUNA

| | |
|---|---|
| **Eremu publikoek behar berriei erantzuteko erabilgarri jartzeko beharrezko egokitzapenak egiteko** | 300.000€ |
| **Ikastetxe inguruak seguruago bihurtu** | 5.000€ |

**Kale desinfekzioa**

| | |
|---|---|
| Materiala (urriaren 8tik abenduaren 31ra) | 417,45€ |
| Pertsonal gastua (urriaren 8tik abenduaren 31ra) | 7.757,54€ |

**Zerbitzuen egokitzapena**

| | |
|---|---|
| Udal langileen EPIak (urriaren 8tik abenduaren 31ra) | 479,16€ |
| Arropa garbiketa Obra eta Zerbitzuetan (urriaren 8tik abenduaren 31ra) | 990,96€ |
| Eraikinetako desinfekzioa (urria-azaroa-abendua) | 56.084,29€ |



Bergarako
Udala

# PLAN INTEGRAL PARA HACER FRENTE A LA PANDEMIA

Bergarako Udala

Bergarako Udala

La incidencia del COVID-19 ha trastornado las vidas, previsiones y planes de personas, empresas, agentes sociales, instituciones...

Desde mediados de marzo, el contexto que se ha generado ha creado nuevas necesidades, junto con la exigencia de gestionarlas. Desde las exigencias y necesidades básicas surgidas en el estado de emergencia, las distintas áreas se han tenido que adaptar al nuevo contexto, ya que lo que comenzó siendo una crisis sanitaria, se convirtió rápidamente en una crisis económica y también social. Por tanto, como respuesta a la crisis global, hemos elaborado un plan integral, que abarca todas las áreas de la vida y que está conformado por grandes y pequeñas medidas.

Con la incertidumbre que provocan estas situaciones de cambio permanente, aun en estas difíciles condiciones, se han tomado decisiones y se han llevado adelante iniciativas junto con distintos agentes y con la ciudadanía.

Han surgido nuevas necesidades y también hemos tenido que cambiar las formas de hacer las cosas. Es evidente que ahora más que nunca son necesarias la responsabilidad colectiva y la colaboración. Y se ha puesto de manifiesto que en algunos ámbitos no se estaba prestando la atención suficiente, como por ejemplo en el área del cuidado.

Aunque parecía que las nuevas condiciones iban a durar poco tiempo, siete meses después aún siguen con nosotros y, lamentablemente, parece que se van a alargar en el tiempo, por lo que en adelante habrá que tenerlas en cuenta a la hora de gestionar cualquier entidad o planear cualquier iniciativa.

En este nuevo contexto, el Ayuntamiento de Bergara sigue en marcha y ha desarrollado un Plan Integral para poder hacer frente a esta situación de crisis en los próximos meses. Empezamos a elaborar el plan antes de verano y ahora lo completamos y lo presentaremos. En este plan se han recogido las acciones puestas en marcha desde el inicio de la pandemia para hacer frente a la situación, así como las que podrán ser necesarias a corto y medio plazo. Se trata de un documento dinámico, tal y como lo requiere la situación inestable que vivimos, que se irá adaptando ante las nuevas necesidades para darles respuesta conforme vayan surgiendo.

Poniendo la vida en el centro y desde una perspectiva global, hemos elaborado un plan integral para relanzar a Bergara hacia adelante en torno a tres ejes principales:

-Reducir la incidencia de la situación de emergencia que estamos viviendo.

-Tener en cuenta los sectores más sensibles de la población.

-Contribuir a la reactivación económica.

Este plan integral es un documento realista que vincula las necesidades identificadas en torno al COVID-19 en el municipio de Bergara y sus posibles respuestas, con las competencias, posibilidades y recursos del Ayuntamiento de Bergara.

Existen áreas en las que hay que trabajar en clave colaborativa, con el objetivo de superar las limitaciones que tiene el ayuntamiento como institución, y abrir las puertas para poder dar respuestas más sólidas mediante iniciativas populares.

Para ello se ha elaborado un paquete de medidas que se irán completando a medida que se vayan identificando las necesidades. De momento, la estimación del presupuesto destinado al plan de choque es de 2.188.000 euros. En cuanto a las medidas adoptadas, queremos subrayar que contamos con un conjunto de medidas que se han tenido que crear específicamente por exigencia de la situación, pero también contamos con otro conjunto de ellas que ya existían previamente pero que, dada la situación, se han tenido que adaptar.

# INVERSIÓN TOTAL

# 2.188.000€

**EN INICIATIVAS Y TRABAJOS REALIZADOS HASTA LA FECHA: 1.092.726€**

**EN INICIATIVAS Y TRABAJOS DE CARA AL FUTURO: 1.095.352€**

**¿De dónde provienen estos recursos? ¿Cuál es la situación económica actual del ayuntamiento de Bergara?**

Ante la situación provocada por el COVID-19, a fin de destinar recursos para ello, se han tenido que revisar en su totalidad los presupuestos de 2020. Este trabajo se realizó en mayo, algunas partidas que ya estaban presupuestadas se reorientaron para adaptarse a la nueva situación, y además se crearon nuevas partidas para atender las nuevas necesidades. Durante esta revisión, a fin de contar con recursos para afrontar la pandemia, bajo el condicionante de la situación y por el establecimiento de prioridades, se han anulado varias partidas con el fin de equilibrar la caída de ingresos experimentada. Las partidas que se han anulado o reducido son las siguientes:

- Festejos y eventos durante la pandemia.
- Reparación de caminos vecinales (barrio de Agarre)
- Muchas inversiones (reurbanización de Zubieta, patio de juegos cubierto, bidegorri de Urteaga...).

Por otro lado, se han revisado todas las partidas.

En total, las partidas adaptadas en mayo: 1.558.197,24€

**PREVISIÓN DE LA REDUCCIÓN DE INGRESOS 3.900.000€**

La diferencia entre ambas cantidades habrá que afrontarla desde el remanente del ayuntamiento de Bergara, hasta casi agotar el remanente de tesorería municipal, de 2.300.000 euros.

# MEDIDAS SOCIOECONÓMICAS

**Situando a las personas en el centro, a partir de la satisfacción de las necesidades básicas, hemos puesto el objetivo en garantizar el bienestar comunitario. Estas medidas se han creado para incidir en las personas, en las familias, en la economía...**

**Desde el primer momento hemos puesto nuestra fuerza y atención en la satisfacción de estas necesidades básicas, analizando las condiciones necesarias y respondiendo ante ellas para garantizar a las personas una vida digna. Por ello se han destinado diferentes recursos municipales relacionados con este conjunto de medidas. Son medidas que responden a las necesidades sobrevenidas en los momentos iniciales de desconocimiento e inestabilidad, así como a las necesidades que aún se mantienen en el contexto actual; medidas que proceden de la reordenación de los recursos municipales, de las redes de solidaridad creadas junto con la ciudadanía y de la colaboración intermunicipal, entre otras fuentes.**

## 1. Personas y familias

- Garantizar la alimentación básica. Participantes: Centros escolares, Danobat, Caritas, Banco de Alimentos, “Bergara Zaintzen” y Ayuntamiento de Bergara.
- Ayudas de Emergencia Social. Participantes: Gobierno Vasco y Ayuntamiento de Bergara.
- Ayudas para reducir situaciones de desventaja educativa. Participantes: Centros educativos, “Bergara Zaintzen”, Royde, Jardun, Soraluce y Ayuntamiento de Bergara.
- Habilitación de casa de emergencias: Acondicionamiento de la vivienda propiedad del Ayuntamiento de Bergara para responder a situaciones de emergencia. Participantes: Ayuntamiento de Bergara.
- Atención a personas mayores en soledad: reorientar el trabajo del personal municipal y durante el confinamiento realizar llamadas telefónicas a personas que viven solas. Participantes: Personal del Ayuntamiento de Bergara.
- Servicio para sacar la basura. Participantes: Ayuntamiento de Bergara y “Bergara Zaintzen”.
- Ayuda a mujeres en situación de riesgo de violencia machista. Participantes: Ayuntamiento de Bergara y colectivo “Martxanterak”
- Comunicación: Atender a las necesidades especiales de comunicación derivadas de la situación de emergencia. Participantes: Ayuntamiento de Bergara.

## 2. Economía

- Ajustes en el pago de tasas e impuestos. Participantes: Ayuntamiento de Bergara.
- Ayuda a la hostelería y comercio local.Participantes: UNED, Diputación Foral, “Bergara Bizi” y Ayuntamiento de Bergara.
- Plan de reactivación del comercio local. Participantes: Bergara Bizi, Magnet Koop. y Ayuntamiento de Bergara. <
- Campañas de reactivación del comercio local (Mercado y comercios). Participantes: Bergara Bizi y Ayuntamiento de Bergara.
- Recursos para mantener abierto el mercado. Participantes: Ayuntamiento de Bergara.
- Indemnizaciones de las empresas subcontratadas. Participantes: Ayuntamiento de Bergara.
- Iniciativas para la promoción del turismo. Participantes: Ayuntamiento de Bergara.
- Espacio “coworking”. Participantes: Ayuntamiento de Bergara y UNED Bergara.
- Huertos comunitarios: desarrollo de un proyecto que combina la economía local, la soberanía alimentaria y el ocio. Participantes: Ayuntamiento de Bergara.



## CULTURA Y OCIO

**Desde el primer momento, teniendo en cuenta la situación de la infancia durante el largo confinamiento, nos hemos centrado en adoptar medidas para facilitar una oferta de ocio saludable y digna. Por otro lado, dada la reducción de la oferta cultural y, en general, de las posibilidades de la ciudadanía de disfrutar del ocio, también ha sido y está siendo un tema prioritario ofrecer una respuesta ante ello. Las medidas que aquí se recogen constituyen una serie de oportunidades para volver a disfrutar de la cultura y el ocio, ofertadas conjuntamente por los centros escolares, Jardun, la ciudadanía y el ayuntamiento.**



- Garantizar la oferta cultural durante la pandemia. Participantes: Mesa popular de Cultura y Ayuntamiento de Bergara.
- Oferta de verano de Laboratorium. Participantes: Ayuntamiento de Bergara.
- Oferta para infancia y adolescencia. Ocio de verano. Participantes: Asociación de fomento del euskera Jardun, Gazteleku, centros escolares del municipio y Ayuntamiento de Bergara.
- Oferta deportiva de verano. Participantes: Ayuntamiento de Bergara.
    - Adecuación de Agorrosin.
- Fomento de ocio virtual en euskera. Participantes: Jardun, Gazteleku y Ayuntamiento de Bergara.

## ÁMBITO PÚBLICO



**Con el objetivo de que los espacios públicos de Bergara sean seguros y para dar respuesta a las necesidades actuales, debemos tener en cuenta las medidas de seguridad y adaptación que se han ejecutado y que se han de ejecutar. Recuperar la vida en Bergara, garantizando la seguridad.**



- Adaptaciones en espacios públicos para atender a las nuevas necesidades
- Desinfección de calles
- Adecuación de servicios (planes de contingencia + EPIs del personal municipal + pantallas)

# MEDIDAS ADOPTADAS

## MEDIDAS SOCIOECONÓMICAS

### Personas y familias

**Garantizar la alimentación básica:**

| | |
|---|---|
| Ayuda básica de alimentación (ayudas ofrecidas en los intervalos entre repartos) | 6.626€ |
| Reparto de alimentos | 23.856€ |
| Ayuda económica para alimentos frescos | 40.000€ |

| | |
|---|---|
| **Ayudas de Emergencia Social (AES) + Ayudas de Emergencia Social Municipales (AES-m) (1 de agosto)** | **182.382€** |

**Ayudas para reducir situaciones de desventaja educativa:**

| | |
|---|---|
| Brecha digital | 4.000€ |
| Educador virtual | 27.343,75€ |
| Ayuda para material educativo y de ocio | 1.500€ |
| Destinar personas educadoras para ayudar a seguir la actividad escolar | 15.370,82€ |

**Atención a personas mayores en soledad**

| | |
|---|---|
| Horas de trabajo del personal municipal para hacer llamadas | 24.150€ |
| **Servicio destinado a personas positivas de covid-19 para sacar la basura** | 5.040€ |

### Economía

**Ajuste en el pago de tasas e impuestos**

| | |
|---|---|
| Agua | 2.501,82€ |
| Recogida de basura | 17.972,39€ |

**Ayuda a la hostelería y comercio local**

| | |
|---|---|
| Bonificación en tasas de terraza para la hostelería | 20.730,24€ |
| Gastos de personal para adaptar las terrazas | 2.351,50€ |
| Formación | 10.500€ |

**Recursos para mantener abierto el mercado**

| | |
|---|---|
| Horas de personal, control de aforo y ayuda | 9.240€ |
| Adecuación del espacio | 2.000€ |

**Plan de reactivación del comercio local**

| | |
|---|---|
| Subvención para la reactivación | 130.000€ |

**Campañas de bonos de compra**

| | |
|---|---|
| Iniciativa “Kuttuna”, para crear un impacto económico de 200.000 euros | 44.000€ |

**Indemnizaciones de las empresas subcontratadas**

| | |
|---|---|
| Servicios deportivos, servicio de socorrismo (marzo-abril) | 18.326,41€ |
| Servicio de yoga (marzo-junio) | 2.460,80€ |
| Servicio OTA (marzo-junio) | 8.700,31€ |
| Limpieza y gestión del frontón municipal (marzo-mayo) | 2.434,57€ |
| Limpieza y gestión de Labegarieta (marzo-mayo) | 2.556,29€ |
| Servicio de biblioteca de Osintxu (abril-junio) | 3.271,04€ |
| Servicio de cine (marzo-julio). * aún pendiente de abono | 7.485,25€ |

## CULTURA Y OCIO

| | |
|---|---|
| **Garantizar la oferta cultural durante la pandemia** | 60.000€ |
| Oferta de verano de Laboratorium | 5.681€ |

**Oferta para infancia y adolescencia**

| | |
|---|---|
| Ocio de verano | 95.000€ |

**Oferta deportiva**

| | |
|---|---|
| Adaptar la oferta deportiva a la situación de pandemia | 45.142€ |

**Fomento de ocio en euskera**

| | |
|---|---|
| Creación de material digital | 15.370,82€ |

## POSIBILIDAD DE UTILIZACIÓN DEL ESPACIO PÚBLICO

**Desinfección de calles**

| | |
|---|---|
| Material (del 27 de marzo al 7 de octubre) | 17.427,55€ |
| Gastos de personal (del 27 de marzo al 7 de octubre) | 159.143,50€ |

**Adaptación de los servicios**

| | |
|---|---|
| Planes de contingencia | 3.853€ |
| Cita previa (BAZ, servicios sociales, Agorrosin) | 4.279€ |
| EPIs del personal municipal y otros materiales | 27.394,73€ |
| Limpieza de ropa en Obras y Servicios (de abril al 30 de septiembre) | 2.065,13€ |
| Empresas externas: desinfección (del 27 de marzo al 30 de septiembre) | 13.541,11€ |
| Productos desinfectantes (del 27 de marzo al 30 de septiembre) | 4.885,49€ |
| Pantallas de protección de metacrilato | 5.425€ |
| Desinfección limpieza de Agorrosin | 4.906,82€ |

## COMUNICACIÓN

| | |
|---|---|
| Campañas de reactivación del comercio local (Mercado y comercios) | 5348€ |
| Avisos, comunicaciones y similares en relación con el covid-19 | 1464,1€ |
| Campaña de marketing de la oferta de verano | 7.000€ |

Bergarako Udala

# DE AQUÍ EN ADELANTE

## MEDIDAS SOCIOECONÓMICAS

### Personas y familias

**Garantizar la alimentación básica:**

| | |
|---|---|
| Reparto de alimentos | 10.000€ |
| Ayuda económica para alimentos frescos | 40.680€ |
| Ayuda económica a Caritas | 10.000€ |

| | |
|---|---|
| **Ayudas de Emergencia Social + AES-m** | 40.543€ |

| | |
|---|---|
| **Habilitación de casa de emergencia** | 49.500€ |

**Ayudas para reducir situaciones de desventaja educativa:**

| | |
|---|---|
| Brecha digital | 4.000€ |
| Ayuda para material educativo y de ocio | 1.500€ |

**Atención a personas mayores en soledad**

| | |
|---|---|
| Medidas para aliviar la soledad de las personas residentes en Mizpirualde | 6.000€ |

### Economía

**Ayuda a la hostelería y comercio local**

| | |
|---|---|
| Portal comercial digital | 5.000€ |
| Subvenciones para la digitalización | 47.800€ |

**Plan de reactivación del comercio local**

| | |
|---|---|
| Subvención para promocionar el fomento de creación de empleos en actividades de economía social y de carácter estratégico | 54.000€ |

**Campaña de bonos de compra**

| | |
|---|---|
| Campaña otoño-invierno: bonos | 120.000€ |
| Futura creación de software para gestión de bonos | 10.000€ |

| | |
|---|---|
| **Indemnizaciones de las empresas subcontratadas** | En proceso |
| **Iniciativas para la promoción del turismo** | 30.000€ |
| **Espacio coworking** | 3.600€ |
| **Huertos comunitarios** | 140.000€ |

## CULTURA Y OCIO

| | |
|---|---|
| **Adaptación de la cultura y del deporte a la pandemia** | 150.000€ |

**Fomento de ocio en euskera**

| | |
|---|---|
| Ofertar más posibilidades para vivir en euskera | 2.000€ |

## POSIBILIDAD DE UTILIZACIÓN DEL ESPACIO PÚBLICO

| | |
|---|---|
| **Realizar las adaptaciones precisas para que los espacios públicos puedan ser utilizados en respuesta a las nuevas necesidades** | 300.000€ |

| | |
|---|---|
| **Hacer más seguro el entorno de los centros escolares** | 5.000€ |

**Desinfección de calles**

| | |
|---|---|
| Material (del 8 de octubre al 31 de diciembre) | 417,45€ |
| Gasto de personal (del 8 de octubre al 31 de diciembre) | 7.757,54€ |

**Adaptación de los servicios**

| | |
|---|---|
| EPIs del personal municipal (del 8 de octubre al 31 de diciembre) | 479,16€ |
| Limpieza de ropa en Obras y Servicios (del 8 de octubre al 31 de diciembre) | 990,96€ |
| Desinfección de edificios (octubre-noviembre-diciembre) | 56.084,29€ |



Bergarako
Udala